

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA GOGOAN (2013-12-15)

Igaro berri zaigun urteak utzi digunari begiratu, euskal kulturaren arloan, bertsolaritzak izan duen oihartzunari erreparatu diot.

2013. urtean gauza asko eta askotarikoak eho izan dira, eta unean-unean hedabideek haien berri eman izan digute. Kolorre guztietako gertakari eta albisteak. Tristeak, etsigarriak, alaiak, itxaropena piztekoak... Egoera ekonomiko eta politikoak beteko zuten, beti bezala, egunkari eta gainerako hedabideetan tokirik handiena. Hala ere, urtearen amaierarantz Euskal Herri osoan barrena jokatu zen *Bertsolari Txapelketa Nagusiak* ia marka guztiak ondu zituela esango nuke. Txapelketa osoan zehar, baina batez ere azken faseko saiorik garrantzitsuenetan, bildu den jendetzak harri eta zur utzi gaitu. Izan ere, berehalako batean amaitzen ziren sarrera guztiak eta, argi ibili ezik, etxean geratu behar. Badakit bertsozale askori gertatu zitzaiena hau: telebistaz jarraitu beharra eta, gaitz erdi, bi adituren iruzkin laburrekin oso egoki eta eroso jarraitzen baitzen. Baina, jakina, bertako saltsa eta giro bizi gozoa falta. Ondorengo astean mezu hau bidali zidan, ni bezala finalerako sarrerarik gabe geratu zen, adiskide min batek:

Oso final ona domekakoa. Amets eta Maialen ondo, baina niri Elortza eta Mendiluze be, asko be asko gustau jatazan. Niretzat, finala, azken urteotako onenatarikoa izan zan.

Eta mezu honetaz ohartu gabe, beste gauza batzuk idatzi baitzizkidan aurretik, hau erantzuten nion nik, gorren arteko elkarrizketa balitz bezala:

*Bertsolari txapelketako finala benetan ederra, ezta? Aurten, urte askoan lehenengoz, sarrera barik geratu naz eta etxetik jarraitu dot, abal izan dodan moduan. Aurreko urteetan esku-
eskura izan obi nituan sarrera bat edo bi eta aurten be horren
esperantzan nengoala, bape barik geratu naz. Gauzak ez ditut,
antza, ondo egin, ni lako bertsozale bat hara barik geratzeko...*

Iraganera begira

Egia esan, oso gazte nintzela erakarri ninduten bertsolariek eta, nola edo hala, haien saioak jarraitzen saiatzen nintzen, zuzenean ez bazen, irratiz. Bertsolariak benetan miresteraino iritsi nintzen, eta nik neuk ere neure erara bertso jarriekin –inoiz ez baitut uste izan bat-batean egiteko gai nintzenik– haien jarduera imitatu nahi izaten nuen.

Aspaldiko urteetara begira jarririk, gure ikasketa garaian bertso-saioren batera joateko baimena lortzea zaila izaten zen. Diziplina gogorra genuen orduan. Behin, horratik, Begoñan teologian nengoela, etxeko bisita izan nuen eta Bilboko Institutuko patioan bertsolari-jaialdi eder bat zegoela-eta hara joan behar genuela. Nik baina baimenik ez, gure zuzendaria hasieran ezetzean zegoelako... Dena dela, etxekoak ni hara eramateko han zeudela-eta, azkenean lortu nuen baimena; nire poza!

1963ko irailaren 22an zen. Alfontso Irigoien zen antolatzaile, gidari, gai-jartzaile, eta aurkezle. Urte horretan ez zen Bizkaiko txapelketarik. Ordura arte urtero izan ohi zen, baina urte hartatik bi urterik behin izango zen. Aldaketa hori apurka-apurka egin ahal izateko eta gure eskualdeetan zen bertso goseari bero-bero eustearren, saioak jarri zituzten lekuan-lekuan, gailentzen zirenei ohiko garaikur eta sariak emanez. Bilboko hau eskualdeka egin ziren saio guztien gailurra zen;

Petritegi
www.petritegi.com



*Petritegi eta bertsolaritza
Gaur, atzotik biharrera*



finala izango balitz bezala, baina, esan dugunez, ez zen finala, ezta txapelketa ere, bertso zaletasun eta lehiaren beroa mantentzeko txapelketaren ordezeko zerbait baizik. Beraz, Irakaskuntzako Erdi Mailako Institutuan zen. Euskal Herri osoko bertsolaririk ospetsuenak gonbidatu zituzten. Han ziren, esaterako, Basarri, Uztapide, Txomin Garmendia gipuzkoarrak, eta Narbarte (Xalto) eta Arozamena nafarrak. Bizkaikoen artean, gainera, kopa bat jarri zuten jokoan, bederatzi puntukoan bertsorik onena kantatzen zuenarentzat eta Joan Mugartegi berriatuarra izan zen irabazlea.

Hau izan zen nik aurrez aurre bertsolari onenetakoei entzun nien lehenengo aldia. Arratsalde ederra igaro genuen. Gero, 1966ko udazkenean Markina-Xemeinen nintzen eta hemen bertsolari onak eta ugari etxean bertan ikusteko eta haiei entzuteko abagunea izaten genuen urtero Pilareko egunean. “Bertsolari eguna” deitzen genion karmeldarretan egiten zen egun honi, “isilpeko bertsolari eguna” esango genuke hobeki, Francoren diktadurapean halako jai eta bilerak agerian egitea debekatua baitzen.

Baina urte hauetako bi final gogo-gogoan ditut eta haien aipamen laburra egin nahi nuke. 1966ko urriaren 30ean Durangon jokatu zen Bizkaiko Txapelketako finala zen bata, eta 1967ko ekainaren 11n Donostiako Anoetan jokatu zen Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren finala bestea.

Markina-Xemeinen pausatu berria, ikasle-garaiko diziplinak ongi markatu gintuztela uste dut. Nagusiei errespetuz begiratzten genien. Nagusia euskaltzalea eta bertsozalea zen, karmeldarretan egiten zen “Bertsolari eguna” eta herriko ikastola sortu zituena. Aita Migel Mari azkoitiarra (Manuel Juaristi Azpiazu). Hark hartu ninduen lagun goian aipaturiko bi final haietara joateko. Biak ere ospetsuak izan ziren eta euskaltzaleek nekez ahaztuko dute Durangon jokatu zen Bizkaiko final hura, baina ez hainbeste Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalagatik, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka ospe-

tsuak egun hartan (1966ko urriaren 30ean) estreinaldia izan zuelako baizik. Horrez gainera, “Ez dok Hamahiru” kantaritaldearen plazaratzea ere egun hartan izan zen Durangoko Andra Mari elizpean. Hurrengo urtean, 1967ko ekainaren 11n, jokatu zen Donostiako Anoetan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren final gogoangarria. Final hura bai nekez ahaztuko dela! Kalitate handiko finala izan zen, baina era berean agerian geratu zen han nolako grinaz eta berotasunez bizi izaten ziren lehia hauek euskaldunen artean. Xalbadorri txistu egin zioteneko finala izan zen hura.

Baina ez dakit zer haizek ekarri nauen ni kontu zahar hauetara... Oroipen haiek ongi sarturik ditut, dirudienez, eta gutxien uste denean azaleratzen zaizkit. Barruan gorderik ditudan bertsolaritzako argazki zaharrak dira. Orain BEC-eko argazki berria eskuratu nahi nuke, argazki zaharren artean galdu baitzait ustekabean.

Argazki berria

Hau bai dela argazki berri-berria! Baina ez azkeneko hau soilik, gutxienez orain dela lau urtekoa eta zortzi urtekoa ere antz-antzekoak baitziren. Hau da, bertso-eskoletatik datorren bertsogintza landu eta jantzia, internet eta informatikaren garaian jaioa, garatuz eta haziz joan da; tradizioetik edanez, baina etengabe gaurkotuz eta eraberrituz, ibai urtsua bezala, euskalkien eta han hor hemengo joeren errekatxoen ur freskoa jasoz, gure kulturaren itsasoan indartsu sartzen ikusi dugu. Eta hau da emaitza, BEC-ekoa, *azken urteotako finalik onenetakoa*.

Bestalde zeharo gaztetu da bertso-mundua. Indarra dakar eta etorkizun oparoaren zantzuak erakusten dizkigu. Baina hau ez da berez etorri. Askoren lana, nahiak, ametsak, gauzak ongi eratzen eta gauzatzen jakitea eta, azken batean, ongi asmatzea... daude bitartean. Noraino iritsi garen behar denez konturatzeko, lehenago non ginen jakiteak asko lagunduko liguke. Begira, orain dela berrogeitaka urte, zer ingurumaritan lan egin

zen bertsolaritzan. Argi adierazten dela uste dut Jon Lopategi-
ren biografian orduko egoera, gehienbat Bizkaikoa adierazten
badu ere. 47. orrialdean datorren atala aldatuko dut hona:

“Bizkaian ia ezerezetik hasi behar zan. Euskaltzaindiak har-
tu eban bertsolaritza bere gain. Izan be, holako erakunde bat
zan egokiena diktadurako gobernuaren susmo txarrak bazter-
tzeko eta bertsolari-txapelketei geriza emoteko. Dana dala,
Euskaltzaindia bai, baina batez be gizon bat agertu zan hor,
ekintza horren giltzarri izango zana: Alfontso Irigoien. Harta-
rakoxea; guztiz aproposa halako garai eta egoerarako. Ha-
maikatu gauza kontuan izan beharko zituan guztia bere bi-
dean jartzeko. Ia miraria emoten eban harek egiten ebanak;
erdi bakarrik eroian antolaketaren nahiz bertso-saioen zama
guztia. Berak aurkitzen zituan bertsolariak han eta hemen; ia
ia ezer ez zan tokian be bai... Berak gaiak jarri, berak epaima-
haikoak bilatu, handik hemendik bertsolariei emoteko sariak
lortu... Zer ez? Inor izatekotan, ha izan zan surtako hauts ar-
tean bai itzaliko ez itzaliko zan bertsolaritza zirika eta zirika
barriro garretan jarriko ebana”.

Hari beretik zihoan Karmeldarretan urtero egin ohi zen bile-
ra haietako batean bertsolari batek eginiko dei larria, hil-
kanpaia edo halako zerbait zirudiena. Atzetik ez zetorrela inor
eta bertan behera amaituko ote zen dena... Zauria ukitu zuela
esango nuke, haragi bizian zen zauria. Itxaropena dei eginez
erantzun zioten, baina ofiziozko erantzuna izan zela, nik uste,
konbentzimendurik gabekoa. Dena dela ofiziozko eta konben-
tzimendurik gabeko hitz motel haiek, profetikoak balira bezala,
egia bihurtu dira, hasierako txingar bakan haietatik sugar indar-
tsua piztu baita. Horrela, argazki berri hauek atera ditzakegu.

Emakumeak holtza gainean

Hor, gainera, berritasun bat nabari da, lehenagoko bertso-
laritzan pentsaezina zena: emakumeak ere holtza gainean

ikustea. Bertso-eskolak izan dira horretarako aukera, neskek mutilek bezain ongi baliatu dutena.

Lehenago, hori zerutik zetorren dohaina, berezkoa, ezin ikasizkoa zela uste zenean, emakumerik ez zen agertzen jende aurrean bertsoan. Gizarteak, gaizki ikusia zelakoan edo, jarririko nolabaiteko debekua? Antzina zaharrearan eta baita Bibliako garaian ere emakumeak ageri dira gizonak baino gehiago bertsozko ahapaldiak ontzen, baina gero ez; gure belaunaldi eta aurrekoetan guztiz ezkutatu ziren eta haien inspirazioa etxe barruko horma artean itoko zen. Onenean ere, semeren bati helaraziko zioten, isileko herentzia balitz bezala, beren dohain, beren zaletasun hori. Azken urteotan, berriz, oso ohikoa da emakumeak bertsoan ikustea; are gehiago: bai protagonistentzat, bai bertsolari lagunentzat eta bai entzuleentzat ez da batere harrigarri izaten. Beste bat gehiago bezala hartzen dituzte. Oraindik normalago gerta dadin, azken lau urteotan Maialen Lujanbio izan dugu Euskal Herriko txapelduna ere. Argazki zoragarria ikusi genuen, Jose Agirre, tradiziozko bertsolari peto-pettoa, Maialeni poz-pozik txapela jartzen. Berak, *Argia* astekarian egin zioten elkarriketa batean, hone-la erantzuten zuen generoaren gaiaz galdetzean:

“Bertsoa oso testuinguru ona da generoaren gaia lantzeko. (...) Neska gazte asko datoz bertsoan, eta gainera, oso maila onekoak. Denbora behar da ikusteko zer gertatzen den emakume bakarraren kontu horrekin. Nik uste emakume bakarra izatearena bukatzen ari dela. Eta emakume zarelako deitze hori ere bai. Guztiz bukatzeko behar du emakume asko egotea, diferenteak eta oso maila onekoak”.

Lehiaren tentsioa

“Ederra daukak” esan zion behin mutiko batek bertso-eskolan Jon Lopategiri, honek Txapelketa Nagusiko finala jokatu behar zuela esan zienean. Mutikoa bera eskola arteko proba eta txapelketa haietan nahiko urduri jartzen zenetakoa

zen... Ederra dute, izan ere, oporrak amaitu berri, txapelketa prestatzean buru-belarri murgildu behar dutenean. Hori entzuleek ere, nola edo hala, sumatzen dute.

Behin Bizkaiko txepeldunari txapela jartzeko izendatu ninduten eta BEC-eko agertokira igo eta jendezko itsaso bat bezala ikusi nuen aurrealdea. Hark nahitaez eragin behar. Dena dela, sarri entzuna dugu tentsio-puntu horrek eramaten dituela, hain zuzen ere, bertsolariak dutenik onena ematera. Horrek eta entzuleen eta lehiakideen babesak. Bai, aurrealdeko jendezko itsaso hark errespetu handia sortuko du, baina baita giro egokia ere bertsolariak ongi aritu daitezten. Entzule adituak dira; haietako asko nahiko trebatuak, plazatik igaroak ez badira ere, ofizio hori zer den nahiko ikasiak. Horregatik, protagonisten ahalegina ongi saritzen dakite eta akatsak barkatzen. Bestalde, kontraesana badirudi ere, ondoko lehiakideak lagunak dira eta ez kontrarioak. Beraz, zertan ote datza BEC-eko azken finalen arrakastaren gakoa? Kontuan izan behar da lehenik eta behin, haraino iristen direnak ez direla multzoko norbaitzuk, Euskal Herri osoko artista hautatuak, bertsolaririk onenak edo onenetakoak baizik; bestalde, prestaera ona dute; baita tentsio-puntu egokia ere; eta azkenik, publiko aditu eta jantzi baten laguntza, harekiko sintonia ederra.

Txapelketa baino hilabete lehenago, 2013ko azaroaren 17an, elkarrizketa luze samarra egin zion Iñaki Mendizabal kazetariak Maialen Lujanbiori. Gaitza ote den txapelketaren tentsioa saihestea galdetu zion kazetariak eta berak erantzun:

Ezin da saibestu. Nik pilo bat sufritzen dut besteak entzuten, gogortuta, nerbioso ikusten ditudanean. Neu egoten naitzen moduan.

Kazetariak hau esan zion jarraian: “Ikusleak baditu bertsolari begikoak, baina ez da pozten besteak kanporatzen direnean”.



Hori ederra da. Ikuslea egon daiteke bata edo bestearen alde, baina ez inoren kontra. Eta bertsolarion artean ere berdin, lagunak gara eta ez diogu ezer txarrik desio aldamenekoari.

Abenduaren 17an egin zioten elkarrizketa Amets Arzallus txapeldun berriari *Berria* egunkarian. Txapelaren pisuaz eta konpromisoaz galdetzean, honela erantzun zuen:


Txapela hemen dago, baina denek josia da. Nik segi nahi nuke aurreko patxadarekin.

Txapelketak zer dakarren adierazten digu Maialenek *Argia* astekarian:

“Txapelketa hasi aurretik badakigu zer dagoen jokoan, zer arrisku dituen. Txapelketa eder bat ateraz gero sekulako saria da, jendearen harrera hori, plazetan ez bezalako arrakasta.

Baina beste aldea ere badu, hariaren gainean zozela eta erortzeko arrisua”.

Iraganeko argazki zaharrak ikustean, 1967ko ekainaren 11n Donostiako Anoetan jokatu zen Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren finalekoari, Xalbadorri txistu egin ziotenekoari, erreparatu diogu. Han nabarmen agertu zen une hartan zegoen tentsioa eta, naturaren indar kontrolaezina balitz bezala, leheritu egin zen zakarki. Gaur egun pentsaezina da halakorik, batez ere Xalbadorrek han erakutsi zuen goimaila ezaguturik. Bai, askoz geroago ere, agertu



izan dira Epai-mahaiari eginiko kritikak, desadostasunak. Baina era arrazoizkoan eginak kasurik gehienetan. Ofizio zaila da, bat-batean ari diren bertsolarien ekarri askotariko eta konplexua, bat-batean zenbakitxo batzuen esparruan biltzea. Ofizio horretatik igaro garenok badakigu zerbait horretaz, une batzuetan epaileak epaituak izaten ginelako irudipena izaten baikenuen... Azken txapelketetan, zorionez, ez da kritika nabarmenik eta epaileenganako mesfidantzarik azalerratu. Badi-rudi, oro har, epaileak eta entzuleak bat badatozela. Seinale ona, epaile-taldea ongi jantzia, eskolatua eta prestua den seinalea.

Eztabaidarako bi gauzatxo

1) *Azken urteetako finalik onena?* Askorentzat bai eta iritzi hori irakurri dut hainbat egunkaritan, baita beste hainbat hedabidetatik eta adiskide adituren ahotik entzun ere. Egia esan, egungo tekniken bidez datu objektibo zehatzak esku artean izateko aukera dute kazetariak. Iritzi hori zabaldu da. Esan dezagun, gutxienez, final ederra izan dela, goi-mailakoa, orekatsua; onena izan ez bada ere, bai onenetakoa. Gauzak pixka bat pausatzen utzita, beharbada, ez da izango entzuleen oroimenean itsatsiko den bertsoarik, final honetako ia bidaia osoa goitik eta gailurretik izan zelako. Orain dela zortzi urtekoan, berriz, bai itsatsi ziren Iturriagaren ironiazko *ejem* haiek eta buruz-burukoan Andoni Egañak bota zuen bertso polit hura, ironia finez beterikoa, *Ikea* altzari-denda erraldoian behiak jertzeko aulki txikirik aurkitu ez zuenekoan...

2) *Bertsolaria bizi guztirako, biziarteko ofizioa?* Nahiko sartua dagoen irudipena da; eta, ziur asko, bertsolariak berak ere kontzientzian sartu-sartua duena: herriaren zerbitzurako dela, bertsolari gisa herriari bere ekarpena egiteko bokazioa duela, kontzientzian marka bat ezarria balu bezala. Adinean aurrera joan ahala, baliteke bigarren maila batean geratzea edota herriak berak dagokion lekuan kokatzea, baina erretiro osoa hartzen ez diote uzten puntako bertsolariari ez bertsozaleek, ez bere kontzientziak. Ez da kiroletan bezala, onenak eman dituenak nahitaezko erretiroa hartu behar duela. Lehen hau sartuago zelako irudipena dut. Jakina! Uztapide, Lazkao-Txiki eta haien garaian bertsolari izatea gutxi batzuek zuten dohaina, karisma zen eta herriak berak eta beren kontzientziak eragiten zien herriaren zerbitzuan jardutera. Gaur egun aldatua dago pentsaera hori. Bestalde, goimailako ikasketak eginiko bertsolari asko dago eta zailago da bizi guztian bertsolaritzan murgildurik irautea.

Azken puntua

Oraingoan plazatik bertatik ez, espazioan eta denboran harturiko distantziatik, begira egon naiz bertsolaritzari eta oso osasuntsu ikusi dut. Baliteke hurbilduz gero, zenbait ilungune ikustea eta gehiegizko euforia apaldu behar izatea. Bada gure atsotizetan ezkortasunera edota errealismora deitzen duen bat: “Urruneko lapikoa urrez, bertaratu eta lurrez”. Dena dela, ziur nago ez dela hori gertatzen bertsolaritzan. Guztia urregorria ez bada ere, urrezuria bai, behintzat. Krisiaz hitz eta pitz ari dira alde guztietatik, baina bertsolaritzaren baratzea aberats eta jori ageri zaigu.

Luis Baraiazarra Txertudi